

## MARTINAREN FAMILIA

Martina 16 urteko neska da, Gado izeneko hiri batean bizi da. Neska argala eta altua da, bere ilea horia delarik. Bere ama Miren izena du, eta bere aita Manolo. Saskibaloian jokatzen du, batzuetan pixkat pikontzia delarik. Bere lagun minak; Untza, Garazi eta Joana dira.

Untza, neska argala da baita ere, futbol talde batean dago, ilea motza du eta asko lotsatzen da batzuetan. Garazi, neska normala da eta pixkat altua, ile marroia du, oso lotsatia da baina pertsona ona ere, pikontzia ez denean. Urkide unibertsitatean dago iada urte bat Martina bezala, Untza Armentia ikastolan dago eta Joana Aniturrin. Joana, neska potxolita da, ile luzearekin, dantza-euskaldunak dantzatzen ditu, animalia bat du etxean, txakur bat. Pertsona ona da.

Untza, Martina eta Garazi hiri berdinean bizi dira, Gadon, baina Joana ez, Joana Estu izeneko herrian bizi da. Herri horretan ezagutu ziren laurak Lautada ikastolan. Baina Joana lasai dago hurrengo urtean Armentia ikastolara joango delako eta guztiak Gadon elkarrekin egongo direlako.

Martina urte osoa lasai egon da prekupaziorik gabe, ikastolara bere lagun mina Garazirekin joaten, familiarekin ondo pasatzen, aiton-amonekin, lehengusuekin... Baina azken astean zerbait arraro sumatzen ari da, etxean dagoen egoera. Lehen etxekolan asko zituenez, bere estudioan sartzen zen eta hor geratzen zen egun osoa, baina duela aste bat udako oporrak hasi direla, eta etxekolanak ez dituenek, ez dago logela batean itxita, eta amaren oihiak entzun ahal ditu. Miren beldurra du Manoloz, Manolo Miren izutzen du mehatsuekin. Eta Martina aste bat egoera hori ikusita kokoteraino dago, eta bere lagun minekin hitzordu bat antolatu du Artepan kafetegian, horretaz hitz egiteko.

Hitzorduaren eguna heldu da eta lasai joan da Martina kafetegira, esan behar duena ondo pentsatuta. Untza, Joana eta Garazi lehenagotik geratuak daude Martina beti berandu heltzen da ta leku guztietara.

- Kaixo neskak! — esan du Martinak pozik, hitzegiteko gogoarekin.
- Kaixo, zer da gauza hain garrantzitsua hemen hitzordu bat antolatzeke? — esan du Untza interesarekin.
- Zuen laguntza behar dut — esan du bat-batean — nire aitak, nire ama mehatsu egiten du eta nire ama beldurra du. Beldur hori kendu nahi diot eta bera ere gogorra dela erakutsi. Nire aitak poterea ez sentitzea nahiko nuke ere, bestela harremana hautsi egin beharko zutela uzte dut, gogorra da, baina... — hasi da negarrez.
- Martina zu lasai, gu zurekin gaude, eta utzi egiten badute zure amaren onerako izango da, ez kexkatu, zu nahi duzunarekin nahi duzun denbora pasatuko duzu, eta kitto, badakit gogorra dela hori pentsatzea, baina begira ni, nire amarekin egoten naiz

denbora gehiena baina nire aitarekin ere denbora pasatzen dut — Esan du Untzak, bere gurasoak bananduta daude eta.

- Hori da, zu ez kexkatu, guk lagunduko zaitugu, garrantzitsuena da zure ama ondo egotea— esan du Joanak.
- Nire ustez zure amarekin txarla bat egin behar dugu, ahal diozu deitu etortzeko? — esan du Garazi planifikatzaileak.
- Horixe baietz oraintxe deituko diot, itxaron momentu bat — esan du, kalera joaten zen bitartean— baietz esan dit orain datorrela, baina ez daki zertarako...

Minutuak pasa dira eta orduak... eta ez dago amaren arrastorik. Orduan berriz deitu diote eta hau esan du ia negarrez:

- Martina, maitia, zure aita etxean dago eta esan dit berarekin geratzeko, etxera heltzen zarenean hitzegingo dugu, agur.

Bere lagun minek guztia entzun dute, Martina negarrez dago, ea bere ama ondo dagoen galdetzen dio bere buruari. Orduan laurak erabaki dute bere amaren etxera joatea eta aitari zerbait esatea, etxea uzteko minutu batzuk, eta horixe egin dute.

- Kaixo etxean nago, aita ahal zara joan liburutegira (hiriko beste puntan dagoela) motxila ahaztu zait, mesedez...— esan du Martinak.
- Bai, baina ez joan inora. — esan du Manolok mehatsuka, atea itxi duarik.
- Ama, lagunekin etorri naiz gauza bat esan behar dizugulako, zu ondo sentitzen zara aitarekin? Eroso sentitzen zara? — galdetu dio Martinak.
- Ez, oso ahul sentitzen naiz, beti mahatsuka dabil, ezin dut gehiago, ez dakit zer egin nire bizitzarekin — esan du Mirenek indarririk gabe.
- Guk erakutsiko dizugo neska gogor bat izaten, gizon guztiak errespetatuko dizute eta hori ez bada egia pikutara bidaliko dituzu — esan du Joanak.
- Kafetegian zerrenda hau idatzi dugu, zure bikoteari horrela errespetatu behar diozu eta bera zuri ere azalduz, zerbait gehitu nahi badiozu gehitu, horrela bikote berdintasuna edukiko duzue — esan du Untzak.
- Zure bikoteak ez badu errespetatzen zerrenda honetan dauden errespetu legeak, pikutara bidali — esan du Garazik.
- Eta azken gauza, aitak errespetu lege hauek betetzen ditu? — galdetu dio Martinak triste.
- Ez, maitia — esan dio amak.
- Ba pikutara bidali!! Eta zuk ezin baduzu beldurra daukazulako ertzainara deitu, gogorra zarelako, nahi duzuna egin ahal duzulako, aupa bikote errespetua!!! — esan dute neska gazteek.

Hilabete barru dena aldatu da, Mirenek badaki bera egin ahal duen guztia, bere erlazioa nolakoa izan behar den, nola tratatu egin behar dioten... Manolo kartzelan egon da bi aste eta

ateratzean ezin da Mirenen albora hurbildu. Martina biekin pasatzen du denbora baina ia denbora guztia amarekin. Miren lista miresgarria bere lagunei erakutsi die eta ia guztiek bera bezala ikasi dute, norbait jo, mehatsatu edo zerbait txarra egiten badizu, pikutara bidali, eta egin kasu bikote errespetu berdintasunari!!! Guztiak zarete gai dena egiteko, sinestu zutaz!